

# A08 - Fabrikazio-prozesuak ezagutzea mugikorrentzako euskarrien sorkuntzaren bidez

Adituek gure (Euskadiko) izaera industrialia nondik datorkigun azalduko dute. Gure enpresa industrialen prozesua ulertzeko, soluzio teknologiko bat lantzea proposatuko zaie ikasleei, eta adibide bezala, egunerokoan etxean gerta dakiekeen egoera bati aurre egiteko adibidea hartuko da, mugikorrentzako euskarria. Ideiaren kontzeptutik abiatuta nola fabrikatuko luketen pentsatu beharko dute eta ondoren errealitatean fabrikazioa IMH Campuseko hainbat makina eta teknologien bidez nola gauzatzen den ikusiko dute.

Ikasurtea  
**3. DBH, 4. DBH**

- 1. Batxilergoa**
- 2. Batxilergoa**

Data  
**2023ko urriaren 16, 17, 18**  
**2024ko apirilaren 15, 16, 17**

Lantzen diren irakasgaiak  
**Teknologia**

Jarduera motak  
**Adituaren bisita eskolara**  
**Bisita erakundera**

Hizkuntza  
**Euskaraz edo gaztelaniaz**

Irismen geografikoa  
**Araba**  
**Bizkaia**  
**Gipuzkoa**

Jarduera ematen duen erakundea  
**IMH Campus**

## Curriculumaren edukiak

Transmisioak eta teknologia mekanikoa.

Mekanizazio-sistemak: makinak, materialak eta prozesuak.

## Zer ikasten dute ikasleek?

Ikasleei hurbiltzea fabrikazio mekanikoko prozesuak eta erabilitako makinak.

## Baliabideak

Internet, ikasgelako ohiko materiala.  
 IMH Campuseko instalazio, makineria eta teknologiak.

## Garapena

**1. INDUSTRIA IZAERA, SARRERA.** Adituak videoaren laguntzarekin bilakaera industrialia nola bizi izan dugun azalduko die ikasleei, Teknologia gelan landutakoa erreparatu eta osatzeko.

**2. ERRONKA LANTZEA:** Jarraian adituak ikasleei egunerokoan bizi duten beharra proposatuko die (mugikor euskarria), teknologiaren bidez irtenbidea beharko duena. Ikasleek taldeka pentsat ueta asmatu beharko dute nola egingo lukete beraien euskarriaren diseinua, eta zer materiale eta makina erabiliko lituzkete, euskarria egiteko.

**3. BISITA:** Ikasleek euskarriaren diseinatze, fabrikatze eta muntatze prozesua errealitatean nola izango den ikusiko dute, eta teknologiak nola uztartzen diren, emaitza lortzeko.

**4. IKASLEEN BALORAZIOA:** Amaieran ikasleei balorazioa eskatuko zaie, ondorioak eta iritziak jasotzeko.